

**Hitz gakoak:** Irrati, Erljio, Kristau, Herri Irratia, Radio Maria

**Abstract:**

*Las religiones, y especialmente la cristiana, han encontrado en la radio un instrumento perfecto para dar a conocer su mensaje religioso. La utilización de este medio, basado en gran parte en el poder de la palabra, para su labor de catecumenado está unido a la historia más reciente de nuestro país y, sobre todo, a la necesidad de algunos sacerdotes de comunicarse con su feligresía en el idioma de ésta. Por este motivo, nacieron por toda la geografía vasca, sobre todo de Euskadi Sur, pequeñas emisoras parroquiales cuyo idioma vehicular era el euskara, tan sólo permitido para estas labores evangelizadoras y poco más y prohibido para la información y la publicidad.*

*Tras diversos abatares, todavía quedan algunas de aquellas radios que nacieron al calor de una iglesia vasca, nacionalista y, sobre todo, amante de su lengua y su cultura. En ellas todavía se ofrecen algunos contenidos de carácter religiosos, si bien junto a ellos podemos encontrar lo que denominaríamos una programación normalizada.*

*Sin embargo, en los últimos años asistimos a un fenómeno nuevo: el asentamiento y proliferación de emisoras –la mayoría de ellas nacidas fuera de nuestras fronteras– cuyo fin único es el de dar a conocer la palabra de “Dios” y que han hecho de la religión –sobre todo cristiana, ya sea católica o no– su **leit motiv** o línea única de programación (ambientada con música). La mayoría de estas cadenas, de las cuales la más conocida es Radio María, emiten dentro de nuestras fronteras sin concesión administrativa y sin ningún tipo de control, con una programación ajena poco ligada a las características propias de nuestra cultura y lengua.*

## **Irrati-hitza, Jangoikoaren berba: Herri irratietatik Radio Mariara**

Arantza Gutierrez Paz

EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saila

mirenarantza.gutierrez@ehu.es

Irratia sortu bezain pronto, Ebanjelioaren mezua hedatzeko tresna egokia izan zitekeela antzeman zuen Eliza Katolikoak. Isabel Sánchez Redondo idazleak azaltzen duenez, Erromako Eliza berehala jabetu zen komunikabide horren eragiteko ahalmenaz, eta 1931n —Pío XI.a Aita Santua zela— *Radio Vaticano* izeneko emisora sortu zuen (Sánchez Redondo, 2001: 13 eta 17).

Horretaz gainera, Pablo VI. Aita Santuak sinaturiko *Intermirifica* izeneko dekretuan (1963) irratia bertuteak azaldu zituen eliza katolikoak:

“Jaungoikoaren laguntzaz sorturiko gauzen artetik gizakiaren argitasunak ateratako teknikaren asmakizun miragarrien artean, Ama Elizak babesten eta bultzatzen ditu gizakien espirituari bereziki begiratzen diotenak eta albisteak, ideiak zein aginteak erraz komunikatzeko bide berriak zabaldu dituztenak. Tresna horien artean, nabarmentzen dira, pertsona bakoitzari banaka ez ezik, jendetza handiari edo gizarte osoari hel daitezkeenak, hala nola prentsa, zinema, irratia, telebista eta beste batzuk, zeinak, arrazoi beragatik, arrazoi osoz giza-komunikazioko hedabideak deitu daitezkeenak”.

Estatu espainiarrean eliza katolikoak zeregin garrantzitsua bete du historian zehar, eta bereziki Franco jeneralaren diktaduran. Harreman horien ondorioz, elizak ez zuen arazo handirik izan irradi-maiztasunak eskuratzeko. 1950eko hamarkadan estazio parrokialak sortzen ari ziren, *Estaciones Audiodifusoras de Acción Católica* izena zutenak (Albillo eta Sánchez, 1995:96). Tokian tokikoak ziren, potentzia txikikoak, eta, ondorioz, hedadura-ahalmen gutxikoak. Baserritarren zonaldeetan ugaritu ziren, hirietan baino gehiago, eta elizetara hurbildu ezin zirenei mezu katolikoa eta sakramentuak helaraztea zen helburu aipagarriena, dekretuz katolikoa zen estatu batean.

1956an Comisión Episcopal de Cine, Radio y Televisión izeneko erakundea sortu zuen, besteak beste irratigintza-ren garapenean parte hartzeko gogoz. Horren bidez, elizaren partaidetza eta komunikabideen kudeaketa zuzentzea bilatzen zuten eliz arduradunek (Sánchez Redondo, 2001: 39).

Dena den, eta interes komunak zituzten arren, botere sekularraren eta erlijiosoaren arteko harremanak ez ziren beti bareak izan, eta akordio batera helduta ere ez ziren beren arteko tira-birak gelditu. Negoziazio eta bilera asko egin eta gero, 1959ko azaroaren 11an, *Dirección General de Radiodifusión y Televisión* izeneko zuzendaritzak eliza espainiarren irratien sarearen oinarriko arauak onartu eta Apezpikuen Batzarraren proposamenak jaso zituen. Horren ondorioz, Elizaren eta Estatuaren arteko akordio-protokoloa sinatu zen. Hitzarmenaren arabera, *Red de Emisoras Diocesanas de la Iglesia* izeneko emisoren

sarearen oinarriak onartzeaz gain, estazio horien kontzesioa eta ezaugarri teknikoak ezarri ziren. Era berean, Elizak irratia sortzeko zuen askatasunari uko egin zion, emititzeko potentzia eta kontrol gehiagoren truke (Ibidem: 49).

Aipaturiko akordio-protokolo horren arabera, elizari Uhin Ertainean maiztasun gutxi batzuk emateaz gain, FMra pasatu behar zutela agindu zuen gobernuak. Izan ere, dialaren aldaketa-epeak 1963ko urriaren 31a baino lehenago burututa egon beharko zukeen, baina epe hori bi urtez luzatu zen, 1963ko urriaren 24ko dekretuaren arabera. Hala eta guztiz ere, irradi gehienak epea amaitu baino lehenago itxi ziren, haien artean Hego Euskal Herriko asko.

## Euskal Irratiak Parrokien aterpean

Estatu espainiarreko beste leku batzuetan bezala, Hego Euskal Herrian ere irradi parrokiak sortu ziren 1950eko hamarkadaren amaieran eta 1960koaren hasieran; esaterako, Nafarroan soilik 15 irradi parrokiak omen ziren.

Hona hemen ikerlariak bildu dituen irradi parrokiak horien zerrenda (gehiago egon zirela jakin arren, ez du horien existentzia probatu ahal izan):

| Irratia                    | Herria   | Herrialdea | Potentzia |
|----------------------------|----------|------------|-----------|
| Arantzako Irratia          | Arantza  | Nafarroa   |           |
| Donostiako Herri Irratia   | Donostia | Gipuzkoa   | 2 KW.     |
| Irungo Irratia             | Irun     | Gipuzkoa   | KW. 1     |
| Loiolako Herri Irratia     | Azpeitia | Gipuzkoa   | KW. 1     |
| Arrate Irratia             | Eibar    | Gipuzkoa   | 2 KW.     |
| Bilboko Herri Irratia      | Bilbo    | Bizkaia    | 2 KW.     |
| Errosarioko Amaren Irratia | Berruete | Nafarroa   |           |
| Gasteizko Herri Irratia    | Gasteiz  | Araba      | 2 KW.     |
| Iruñeko Herri Irratia      | Iruñea   | Nafarroa   | 2 kW      |
| Segura Irratia             | Segura   | Gipuzkoa   | KW. 1     |
| Tolosako Irratia           | Tolosa   | Gipuzkoa   |           |
| Irurita Irratia            | Irurita  | Nafarroa   | 500 w.    |

1955ean, Zesareo *Segura Irratia* sortu zuen, eta 1956ko apirilaren 2an hasi zen emititzen. Segurako *Acción Católica* zelako erakundeak zuen zentroan kokatuta zegoen eta hasieran 25 W-ko potentzia zuen; hau da, bertan entzuteko nahikoa soilik. Horren programazioa eduki erlijiosoek betetzen zuten ia osotasunean; hain zuzen ere, Errosario Santua eskaintzen zen eta baita albistegi katolikoak ere. Kirolak, eskaintako diskoak eta euskarazko abestiek osatzen zuten emankizuna.

Nafarroako lehenengo irratia, berriz, 1958an hasi zen emititzen Berrueten, eta bere izena *Errosarioko Amaren Irratia* izan zen, Jose Manuel Lasarte izeneko apaizaren eskutik. Lasartek zerbitzu erlijiosoak eskaintzeaz gain, euskal kultura, euskara eta musika nahi zituen ezagutzera ematera (Ze berri, 2009:5).

Lasartera Leitzera joan behar izan zelarik, irradi-tresneria beste apaiz bati saldu zion, Esteban Irigoyeni; honek Arantzian irradi bat munta zezaten. Irigoyenen asmoa euskara desager ez zedin ahalegintzea izan zen (hori zela eta, esaterako, mezak euskaraz abesten hasi zela aitortu zuen). Programazioari dagokionez, Irigoyenen hitzetan honakoa zen:

*“Guk iluntzean errosarioa emititzen genuen egunero, eta eguneko abisuak ematen genituen, esaterako, medikuaren edo ganadu-tratulariaren bisitak. Asteazkenean, bi edo hiru orduz emititzen genuen, lau orduz txerri-hilketa garaian, jendea laguntzeko. (...) Munduko albisteak komentatzen genituen, kirolak, bertsolarien saioak grabatzen genituen eta eliza zein herriko gauzak azaltzen genituen. Esaterako, irratitik jendea kontzientziatu genuen umeak eskolara eraman zitzen, eta eskola*

*berrirekitzea lortu genuen. Igandeetan, meza eskaintzen genuen irratitik eta gero dedikaturiko diskoak jartzen genituen. Hortik ateratzen genuen disko gehiago erosteko dirua”* (Ze berri, 2009: 6).

Eibarren, aldiz, Pedro Gorostidi apaizak *Arrate Irratia* jarri zuen abian 1959ko abenduaren 23an. Lehenengo emanaldiak Arrateko Santutegiko atzealdetik egin ziren, eta Uhin Ertainean jasotzen ziren. Garrantzi handia izan zuten programazioan erlijioak eta kristau-ikasbideak; euskaraz emititzeko aitzakia eta arrazoa; berriz, kristau-ikasbidea baseritarrei helarazteko baseritarrek erabilitako hizkuntzan ematea komeni zela.

Euskal hiriburuetako lehenengo emisora Iruñekoa izan zen, *Iruñeko Herri Irratia*, alegia. Estazioa 1959ko abuztuaren 4an inauguratu zen<sup>1</sup>, EAK-4 adierazleaz. Emisio-potentzia 900 W-koa zen eta tresneria teknikoa Atarrabiako Aita Domingotarren Apaizgaitegian zegoen kokatuta, bi estudiorekin batera; hirugarren estudio bat Iruñeko Santu Domingoko Komentuan zegoen. Hara eraman ziren estudio guztiak 1962an (Albillo eta Sánchez, 1995: 103-104).

Nafarroako irratigintzaren historiari buruzko liburuan Carlos Albillo eta José Javier Sánchez Aranda adituek azaltzen dutenaren arabera, *Radio Requeté* izeneko emandegian Atarrabiako Aita Domingotarrek eskaintzen zituzten irratsaio erlijiosoetan oinarritu zen *Iruñeko Herri Irratiaren* sorrera. Domingotarrek 1952an hasi ziren emankizun erlijiosoak eskaintzen; besteak beste, Errosarioa, *Angelus*-a, gaixoentzako emanaldi bereziak, meditazioak, mezak, hitzaldiak, sermoiak, aholkularitzak eta Gabonetako zein Aste Santuko emanaldi bereziak (Ibidem: 102).

Bilbon, *Bilboko Herri Irratia* (EAK-13) 1959an sortu zuen Bizkaiko Gotzaindegiak. Kultura era erlijioari buruzko gaiak nagusitzen ziren programazioan, eta eduki batzuk euskaraz eskaintzen ziren: adibidez, *Irrintzi* saioan, *Omilian*, *Errosario Santua* izeneko emanaldian.

Donostiako Herri Irratia (EAK-44), berriz, hiriburuan 1962an sortu zuen Gipuzkoako Gotzaindegiak, Felix Monederoren eskutik. Hasieran, estudioak Bengoetxe kalean kokatu ziren eta zentro igorlea Aieten, 1974an Garibai kalera eraman ziren estudioak, eta hortxe daude oraindik —gaur egun *Onda Vasca* katearen barruan—.

Hiriburuko irratia sortu aurretik, 1961eko otsailaren 11n emititzen<sup>13</sup> hasi zen *Loiolako Herri Irratia* (EAK-66), Jesusen Lagundiaren eskutik, eta Loiolako Santutegiko egoitzan jarri zituen estudioak; 60 m-ko antena, berriz, Erlenate mendian zegoen. Emisio-potentzia 2 KW-koa zen eta, beraz, Azpeitian ez ezik, inguruko herri askotan jasotzen zen seinalea. Irratsaio erlijiosoez gain, pilota-partidak eta bertso-saioak eskaintzen zituen, baita txirindularitza-lasterketen emanaldiak ere.

Arrate, Segura eta Tolosako irratiak itxita zeudela, *Loiolako Herri Irratiak* jarraitu zuen euskaraz emititzen 1964an. Dena dela, aipaturiko dekretuan oinarrituta, emisora horri ere heldu zitzaion ixteko agindua. Beraz, 1965eko uztailaren 26an, *Loiolako Herri Irratia* itxi zuten agintariek. Urtebete ondoren, 1966ko uztailaren 31n, berriz ere ekin zion emititzeari, baina Maiztasun Modulatuan. Bigarren garai horretan, estudioak handitu zituzten eta emisore berri bat kokatu zuten Itsumendin.

Donostia eta Bilboko *Herri Irratiek* autonomia mantendu zuten aurrerantzean, eta, 1971n *Radio Popular SA* izeneko enpresa eratu zenean, katearekiko asoziatu moduan jarraitu zuten 1993ra bitartean; Iruñekoa, berriz, *COPE*ren egituraren barruan sartu zen erabat 1989ko urtarrilaren 1ean (Albillo eta Sánchez, 1995: 248).

*Gasteizko Herri Irratia* sortzen azkena izan zen. Eusko Jaurlaritzak 1989an egindako maiztasunen banaketan Jesusen Lagundiari egokitu zitzaion bat, Gasteizen.

<sup>1</sup> Diario de Navarra (1959): “Solemne y brillante bendición e inauguración de Radio Popular de Pamplona”, abuztuaren 8

1993ko irailaren 1ean, Loiola, Donostia, Bilbo eta Gasteizko emisorek COPErekin zuten lotura bertan behera utzi zuten. Kate espainiarrarekiko harremana eten eta gero, bi irrati gipuzkoarrak eta gasteiztarrak batera emititzeko akordiora heldu ziren; gaur egun, berriz, Onda Vasca izeneko irratiaren dauden sartura. Bilboko Herri Irratiak, berriz, “*Katerik gabeko irrati*” leinari eutsi zion, eta oraindik bakarka jarraitzen du, aurrekoekiko kolaborazio batzuk mantentzen dituen arren.

Hiriburuko irratiak izan ezik, parrokiako emisora gehienak itxi ziren. Gora behera batzuk tarteko, Segura Irratiak berriz emititzeko baimena lortu zuen 1977ko ekainaren 15ean. Gaur egun irrati komertzial moduan ari bada ere, oraindik ere eduki erlijiosoak duten irratsaioak eskaintzen ditu. 1978ko uztailean berriro hasi ziren Arrate Irratiaren emanaldiak, baina berriz itxiarazi zuten urte bereko azaroan, baimenik ez zuelako. 1982an ireki zen, Bernardo Ibarrenaren zuzendaritzapean. Irrati pirata moduan aritu eta gero, 1989ko abuztuaren 9an emititzeko lizentzia eman zion Eusko Jaurlaritzak.

Euskal Herrian zehar sortu ziren irrati horien ezaugarriak oso lotuta daude euskal elizaren berezitasunei; mezu erlijiosoak ezagutzera ematea ez ezik, euskal kultura eta euskara bultzatzea zuten helburu, baita kokatzen ziren herrietako bizitzan parte hartzea ere. Horrela azaldu zuen Dorleta Alberdik (2004) Bizkaia Irratiari dagokionez:

“Bizkaia Irratiaren erabagia euskerearen eta euskalkiaren aldeko apostu garbia egitea izan da, beti be, balore kristauak aintzakotzat hartuta eta bultzatzeko helburuz. Oinarrizko ezaugarri honek lehenetsuna euki dabe bai Bizkaia Irratian (1990) zein Herri Irratian be (1973-1990).”

Euskara eta euskal kulturaren alde lan egiteak arazo asko sortu zituen elizaren irratiaren arduradunen eta Informazio Ministerio espainiarren agintarien aurrean. Sánchez Redondo-k azaltzen duenez (2001: 66), elizaren eta gobernuaren arteko harremanak gaiztotu egin ziren 1961ean; euskal irrati parrokiak batzuek euskaraz emititzen zutelako. Berezi asko izan ziren *Loiolako Herri Irratiaren* aurkako salaketak «*segurtasun publikoaren*» aurka jotzen omen zuelako, nazio espainiarraren batasunaren aurkako aldarrikapena zelakoan<sup>2</sup>.

Juan Mari Torrealdaik idatzitako *El libro negro del euskera* liburuan jasotzen denez, irrati-arduradunek ordezkariak espainiarrean zehaztu behar zuten euskarazko irratsaioen zerrenda, eta baimenduak zirenak soilik eman ahal ziren euskal hizkuntzan. Euskara «*denboraz kanpoko*» irratsaioetan soilik erabil zitekeen; hau da, kulturaletan, literatura edo historiari buruzkoetan, eta erabat debekaturik zegoen gaurkotasunarekin zerikusia zuten edukietan, publizitarioak izan arren (Torrealda, 1998: 172 eta 173); ondorioz, publizitatea eta arrakasta handia zuten disko eskainiak hortik kanpo geratzen ziren.

Gaur egun soilik Bilboko Herri Irratiak eta Bizkaia Irratiak eskaintzen dituzte irratsaio erlijiosoak; lehenengoa, arratsaldero errosarioa eta “Iglesia hoy” izenburuko ordu erdiko irratsaioa eskaintzeaz gain, igandeetan mezaren emanaldia eskaintzen die bere entzuleei. Bizkaia Irratiak, berriz, “meza santua” uhineratzen du egunero

---

<sup>2</sup> Gatazka horren berri zehatza eskaintzen du Sánchez Redondo-k COPE-ri buruzko historian: «*Por otro lado, se intentaba presentar a Radio Popular de Loyola, propiedad de la Compañía de Jesús, como una emisora que atentaba contra la seguridad pública al dar programas en lengua vasca, por lo que el Ministro de Gobernación debía realizar las acciones pertinentes*» (Sánchez Redondo, 2001: 67). Era berean, Carrero Blancori Iruñeko Artzapezpikuak 1961eko irailean zuzendutako gutunaren pasarte hau jaso du adibide moduan: «*Se quiere alegar que la emisora de Loyola da programas en vascuence atentando contra la seguridad pública. Es cierto que se traducen al vascuence algunas informaciones, como se hace con sermones y catecismo allí donde apenas conocen el castellano, pero siempre con la más perfecta ortodoxia y amor a la patria, sin atisbo de separatismos, bien vigilados en la formación del personal que interviene: Padres Jesuítas y algunos seglares bajo la responsabilidad del Obispo de San Sebastián*» (Ibidem: 68-69).

bizkaieraz. Horretaz gainera, COPE izeneko kateak Hego Euskal Herrian dituen lau irratiaren ere erlijioak badu bere lekua programazioaren barruan.

### **Ipar Euskal Herrian ere, emisora kristauak entzungai**

Hego Euskal Herrian bezala, Iparreko zonaldean ere badaude entitate erlijiosoek bultzaturiko emisorak. Eliza katolikoari dagokionez, Ipar Euskal Herriko elkarte kristauari zuzendutako irrati bat sortzeko elkarte sortu zen 1988ko abuztuan, *Association Pour une Radio de l'Eglise en Pays-Basque* delakoa, alegia. Urrats desberdinak eman eta gero, 1992ko uztailean Lapurdi Irratia emititzen hasi zen, herrialdeko hamabost parrokiaren arteko akordioaren ondorioz.

Irratiko arduradunen esanetan, Ipar Euskal Herriko kristauei zerbitzu eskaintzea izanda, eleaniztasuna hautatu zuen hasieratik; beraz, elkarte katolikoan bezala, frantsesa eta euskara erabiltzea erabaki zuten, fededun guztiengana beren hizkuntzan heltzeko asmoz.

Bere webgunean azaltzen duen moduan, Lapurdi Irratiaren programazioa lau ardatz nagusitan oinarritzen da: alde batetik, fedeari buruzko gaiak eskaintzen dira — kristau-ikasbidea, hezkuntza biblikoa, angelus-a, otoitza, adibidez—, beste aldetik, kulturari buruzko irratsaioak, informazioa eta irratsaio musikalak —frantsesezko eta euskarazko abestiek, mundu osoko kantek, musika klasikoak edota instrumentalak eta abesti erlijiosoek osatua—. Gaur egun COFRAC<sup>3</sup> delakoaren irratsaio-bankutik hainbat irratsaio sartzan ditu bere programazio-parrillan. Langileei dagokienez, berrogeita hamar boluntariok lan egiten dute irratsaioetan.

Horrez gain, *Radio Bonne Nouvelle* izeneko emisora kristauaren sintonia dago entzungai Ipar Euskal Herrian, Baionatik emititzen du frantses hizkuntzan. Programazioaren bi heren musikak betetzen du, bereziki “gospel frankofonoa” deiturikoa eta erlijio protestanteari lotutakoa<sup>4</sup>. Irratsaioen edukari dagokionez, berriz, interkonfesionalak dira, hau da, protestantea ez ezik, beste erlijio kristauak ere lekua dute irratsaioetan (katolikoa edo ortodoxoa, alegia), nagusiki irrati protestantea den arren. Era berean, erakunde humanitarioen eta elkarte solidarioen berri ematen dute<sup>5</sup>.

### **Radio Maria, irrati katoliko globalizatua**

Azken 30 urteotan euskal gizartearen sekularizazioa gero eta nabariagoa izan da, eta erlijioak lekua galdu du interes-gaien artean (Ruiz Vieyetez, 2010: 45). Beraz, oso era naturalean ere desagertu dira gai erlijiosoak komunikabide publikoetatik, eta igandero meza eskaintzen jarraitzen duten arren, emanaldi hauek ez dira kate nagusietan eskaintzen ezta prime-time deituriko ordutegian ere.<sup>6</sup>

---

<sup>3</sup> COFRAC, Communauté Francophone de Radios Chrésiennes, Parisko Radio Notre-Dame, Nantes-ko Radio Fidélité Nantes, Radio Eclésiá eta Radio Jericho irrati irratsaioak eskaintzen ditu gainerako irrati asoziatuei; <<http://www.cofrac-media.com/>>.

<sup>4</sup> Les 2/3 du temps d'antenne sont musicales avec une majorité de musique "easy listening" que nous nommons "musique ambiance" et classique avec un effort particulier en ce qui concerne l'histoire des musiques et des compositeurs. La moitié de ce temps d'écoute est dédié à la variété française et étrangère soutenue par un effort particulier en ce qui concerne les réalisations de la communauté chrétienne d'expression française, surtout protestante, que nous nommons "gospel francophone", <<http://www.radiobn.com>>.

<sup>5</sup> <<http://www.radiobn.com>> webgunean.

<sup>6</sup> Esaterako, EITB-k “Meza Santua” eskaintzen du igandero, ETB1ean, goizeko 9:20ean; era berean, Euskal Kontsilu Ebangelikoak Bizi Berria eta Nueva Vida izeneko saioak eskaintzen ditu igande goizetan bi kanaletan. RTVE-ri

Beste aldetik, badago nabarmendu beharreko irrati-fenomeno bat: Radio Maria. 1980ko hamarkadaren hasieran jaio zen Arcellasco d'Erba herriko parrokian, bertako apaizek bultzatuta beren mezua ahal zuten herritar gehiengana hel zedin. 1987an, berriz, Radio Maria izeneko elkarte eratu zuten apaizek eta laikoek eta ebanjelizazio-proiektu globalago bat bultzatu zuten. Italiatik fenomeno beste herrietara esportatu zen, bereziki Latinoamerikara. Horretarako, “boluntarioen” sarea eratu dute munduan zehar. Horien helburua, webgunean ([www.radiomaria.es](http://www.radiomaria.es)) azaltzen dutenez ebanjelizatzea da, eta horretarako misiolari ona da irratiak:

"Radio Maria izatearen arrazoa (...) arimen Salbazioa da, hau da, konbertsioaren iragarpena, fede katolikoa era berrituan proposatzen irratia bidez".

Gaur egun, Radio Maria delakoak, berriz, 67 irrati-kate ditu 58 herrietan eta 47 hizkuntzatan, eta bere asmoen artean Afrikan ere sartzea dago (Español, 2012). Hego Euskal Herrian ere lau herrialdetan kokaturik dago, honako maiztasun hauetan:

| Araba   |           | Bizkaia  |            | Gipuzkoa  |            | Nafarroa  |            |
|---------|-----------|----------|------------|-----------|------------|-----------|------------|
| Laudio  | 96.0 Mhz. | Bermeo   | 89.0 Mhz.  | Bergara   | 100.6 Mhz. | Aoiz      | 92.5 Mhz.  |
| Gasteiz | 87.6 Mhz  | Bilbo    | 101.2 Mhz. | Eibar     | 91.5 Mhz.  | Lesaka    | 98.2 Mhz.  |
|         |           |          | 105.2 Mhz. | Irun      | 99.1 Mhz.  | Lizarra   | 99.5 Mhz.  |
|         |           | Durango  | 99.3 Mhz.  | Loiola    | 100.3 Mhz. | Los Arcos | 98.8 Mhz.  |
|         |           | Gernika  | 99.0 Mhz.  | Olabarria | 91.0 Mhz.  | Iruñea    | 89.8 Mhz.  |
|         |           | Lekeitio | 99.1 Mhz.  | Donostia  | 100.3 Mhz. | Peralta   | 96.9 Mhz.  |
|         |           | Plentzia | 101.9 Mhz  |           | 97.6 Mhz.  | Gares     | 107.0 Mhz. |
|         |           |          |            | Tolosa    | 105.9 Mhz. | Aralar    | 95.2 Mhz.  |
|         |           |          |            | Zarautz   | 103.8 Mhz. | Sesma     | 101.1 Mhz. |
|         |           |          |            |           |            | Tutera    | 104.2 Mhz. |

Iturria: <<http://www.radiomaria.es/frecuencias.aspx>>

Lizentziarik gabe emititzeagatik 2009an izandako polemikaren ondoren, webgunean irakurri dezakegu irratia ohar bat zeinetan esaten duen maiztasunak legalki eskuratu dituela eta kasu batzuetan, beste irrati batzuek utzitakoak direla; hala ere, ikerlariak ezin izan du frogatu azaldutako maiztasunetan emititzeko baimenik duenik, eta da Radio Maria elkarte ez da agertzen Jaurlaritzak argitaraturiko lizentzia-emakidadunen zerrendan<sup>7</sup>.

Katolikoaz aparte, beste erlijio batzuk ere zabaldu dira Euskal Herrian zehar, haien artean, pisu handia hartu dute kristau ebanjelistek; horren adibideak dira Euskal Herriko Kontseilu Ebanjelikoak EITBn eskaintzen dituen “Bizi Bizia” eta “Vida Nueva” saioak. Horretaz gainera, irratiari dagokionez, *Radio Televisión Amistad* izeneko estazio bat dago Bilbon (FMko 105.0 Mhz.tan) erlijio ebanjelikoaren mezua hedatzeko helburua duena.

Eliza ebanjelikoari, baina kasu honetan “Iglesia Cuerpo de Cristo” izenekoari, lotuta dugu RKM irratiak. REMAR izeneko GKEtik sortutako doktrina ebanjeliko pentekostal honen jatorria 1982an kokatu behar dugu Gasteizen. Gaur egun, berriz, aipaturiko irrati-katea –musika eta erlijioan oinarritutakoa- eta *Solidaria TV* telebista bat

dagokionez, La 2-en ematen dute “El día del Señor” Saioa igandero 10:30etan, eta “Misa en España” dugu Radio 5-tik emititzen den irratsaioa.

<sup>7</sup> [http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-kghz2/eu/contenidos/informacion/radio/eu\\_radio/Prestadores\\_radio\\_eu.pdf](http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-kghz2/eu/contenidos/informacion/radio/eu_radio/Prestadores_radio_eu.pdf)

kudeatzen dituzte. Izan ere, RKM-k Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan ditu estazioak: Bilbon (FMko 104,6 Mhz.etan), Ordizian (100,5 Mhz.etan), Donostian (102,2 Mhz.etan), Gasteizen (104,8 Mhz.etan) eta Iruñean (92.5 Mhz.etan). Horretaz gainera, Latinoamerikako zenbait herritan ere badago kokatuta. Kasu honetan, aurrekoan bezalaxe, publizitatea, bazkideen ekarpenak eta dohaintzak dira finantzabide nagusiak.

## Ondorioak

Adituek, azken hiru hamarkadetan, euskal gizartean emandako sekularizazio eta laikizazioa frogatzen duten arren, egindako ikerketatik ondoriozta dezakegu erlijioa oraindik badela hizpide zenbait komunikabidetan, eta bereziki irratietan. Badaude egon, tradizio handiko irradi erlijiosoak, gotzaindegietara edo parroketara lotuak jaio zirenak, bereziki (Herri Irratia, Bizkaia Irratia, Segura Irratia eta Arrate Irratia) zein COPE kate estatalaren tokian tokikoak.

Jaiotzez eliza katoliko barruan sorturi diren irradi horien programazioa guztiz normalizatua da, eta gainerako kateetan eskaintzen diren antzeko edukiak eskaintzen dituzte, eta soilik ematen duten meza edo angelus zein errosarioa dira une puntual batzuetan erlijio katolikoari lotuak jaio zirela agerian uzten dituzten zeinu bakarrak.

Beste aldetik, eta nahiz eta estatu laiko batean kokatuta dauden, Ipar Euskal Herrian, laurogeiko hamarkadan -irratihedapen publikoaren monopolioa apurtuta- jaio ziren hainbat estazio, horien artean, *Lapurdi Irratia* eta *Radio Bonne Nouvelle*, irradi kristauak: lehenengoan, katolizismoaz gain, mezu protestanteaz zabaltzen dira; bigarrena, berriz, Frantziar estatuan zein frantziar menpeko herrietan ere zabaldua dagoen egitasmo globala da.

Globalizazioa ere bada Hego Euskal Herrian kokatu den beste kate erlijiosoaren ikurra, Radio Maria delakoarena alegia. Espainiar estatuan ez ezik, Amerikan hainbat estazio ditu. Gure herrialdeei dagokienez, legalitatetik kanpo emititzen du, inolako baimen administratiborik gabe.

Beste fenomeno bat dugu eliza ebanjelikoei lotutako komunikabideena, etorkinei zuzenean lotuta -bereziki Amerikatik datozeinei-. Izan ere, RKM eta RTVAmistad bezalako kateek emititzen dute gure mugen barruan.

Aipatzekoa da bestalde hizkuntzaren erabilera ezberdina irradi erlijioso tradizionalen eta azken urtetan sortutakoen artean: lehenengo irradi erlijiosoek euskara eta euskal kultura ezagunarazteko asmoa gaineratu zioten mezu kristaua zabaltzeko helburuari; gaur egungoek, berriz, ez dute euskara erabiltzen programazioan (espainola da hizkuntza bakarra Radio Maria, RKM eta RTV Amistad, eta frantsesa Bonne Nouvelle katean), eta askotan emisioak Euskal Herritik kanpo egiten dira eta ez da bertako kultura edo bizitzari buruzko aipamenik egiten.



## Bibliografía

ALBERDI, D. (2003). "Bizkaia Irratia ahozko komunikabide bakarra mendebaldeko euskaran". (Mendebalde, Ed.), [on line] <[www.mendebalde.com/antbuspre.asp?Cod=1834&nombre=1834&orden=True](http://www.mendebalde.com/antbuspre.asp?Cod=1834&nombre=1834&orden=True)> (kontsulta: 2011/11/19).

ALBILLO TORRES, C. Eta SANCHEZ ARANDA, J. J. (1995). Historia de la radio en Navarra, Iruñea, Nafarroako Gobernua.

BARBADO PEDRERA; Teresa (2009). "Iglesia católica y medios de comunicación en una sociedad laica", Utopía, Revista de cristianos de base. <<http://www.revistautopia.org/2009/iglesia-catolica-y-medios-de-comunicacion-en-una-sociedad-laica>> (kontsulta 2011/10/09).

ESPAÑOL, L. (2012). "El fenómeno Radio María cumple sus primeros 25 años" [on line], Suite 101 Medios de Comunicación, <<http://www.suite101.net/news/el-fenomeno-radio-maria-cumple-sus-primeros-25-anos-a75583>> (kontsulta 2012/02/05).

GUTIERREZ PAZ (2002). Euskal Irratigintzaren historia, Bilbo, UEU.

NAVARRO, D. (d.g.). "Transformando el espacio público. El trabajo de una radio local religiosa en una comunidad urbana marginal". [on line] [http://www.alaic.net/alaic30/ponencias/cartas/Com\\_popular/ponencias/GT15\\_12Navarro.pdf](http://www.alaic.net/alaic30/ponencias/cartas/Com_popular/ponencias/GT15_12Navarro.pdf) (kontsulta 2011/11/19).

PABLO VI.a (1963), "Inter Mirifica (Sobre los medios de comunicación social)", Erromako San Pedron, 1963ko abenduaren 4, <[http://www.msperu.org/teologia/vaticanoII/vinter\\_mirifica.htm](http://www.msperu.org/teologia/vaticanoII/vinter_mirifica.htm)> (kontsulta, 2011/09/22).

ROJO GARCIA, J. M. (d.g.). *Evangelización y medios de comunicación. Hacia una radio misionera*, Revista Páginas, 199, 49-61 o.: [www.revistapaginas.com.pe/index.php/archivo/download/366](http://www.revistapaginas.com.pe/index.php/archivo/download/366) (kontsulta. 2011/11/19)

RUIZ VIEYTEZ, E. J. . (2010). "Introducción: diversidad religiosa, identidad y derechos humanos en Europa y en la complejidad vasca". Ruiz Vieyetz, E. J. (Zuz.). Pluralidades latentes. Minorías religiosas en el País Vasco. Barcelona: Icaria, 17-48.

SANCHEZ REDONDO, I. (2001). Historia de la COPE (1950-1983). Una radio diferente, Valencia, Fundacion Universitaria San Pablo-CEU

## Webguneak

<<http://www.lapurdi.net/>>

<<http://www.radiobn.com/>>

<<http://www.radiomaria.es/>>

<<http://www.rtvamistad.net/radioty/emisorasderadio/index.html>>

<<http://www.rkmradio.com/rkm/>>

<<http://www.cofrac-media.com/>>